

**ERABAKIA, 2022ko MARTXOAREN 18koa, UPV/EHUko IKERKETAREN
ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUn IKERTZAILEAK
PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2021 (I. ETA II.
MODALITATEAK) BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2021eko maiatzaren 7an, UPV/EHUN ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia 2021 (I. eta II. Modalitateak).

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, 2022ko otsailaren 15an, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena argitaratu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman zen kontratua onartu edo bertan behera uzteko eta alegazioak aurkezteko.

Aipatutako erabakia argitaratu ondoren, akats bat ikusi da erabaki horretako I. Eranskinen: PIF20/305, N.A.N. AAD297366, eskaera ez da agertzen, baztertua dagoen arren, deialdiaren baldintzak ez betetzea: titulazioa 2018ko urtarrilaren 1tik lehenagokoa da eta eskatzaileak ez du proposatutako proiektuaren gaiarekin bat datorren lan edo ikerketa ibilbiderik egiaztatzen (IGBB) (3.1.a.i)

Epe hau iraganik, IGBBk martxoaren 16ko bileran aurkeztutako alegazioak aztertu ditu eta lau eskabidek 5. edota/eta 6 irizpideen berrikusketa behar duela eta alegazio bat igorri behar duela Ikerketarako Estatu Agentziako Koordinazioarako eta Ebaluaziorako Azpiatalera (ANEP) erabaki du eta beste alegazioak ukatu egin ditu. Berrikusketa honen emaitza interesadunari jakinaraziko zaio. Eskaera hau emango da puntuazioaren berrikusketarekin behin betiko zerrendaren gutxieneko puntuazioaren gainetik kokatzen kokatzen bada. Horrexegatik, postu bat gordeko da, eskatutako berrebaluazioaren emaitza aurreikusiz.

Bestalde, PIF21/60 (03218028Y), PIF21/70 (79000002Q), PIF21/92 (72844032L), PIF21/205 (44690323N), PIF21/112 (44335553V), PIF21/243 (AY7801249), PIF21/298 (47114053W), PIF21/55 (209080087) (I. Modalitatean) eta PIF21/151 (72592538F) (II Modalitatean), kodea duten eskaerak aurkeztu dituzten pertsonak ezetz esan diote laguntzari. Horrela, emandako laguntzak aldatzen dira.

Ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian argitaratzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eta II. eranskinetan (I. eta II. modalitateak, hurrenez hurren) jasota dagoena eta lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta. Zerrenda horretan erreserbako eskabideak ere jasotzen dira, eta horiek laguntza jaso ahal izango dute hutsik gertatuz gero, puntuazio hurrenkerari jarraituz handienetik txikienera. Laguntza gehiago ematen bada, onuradunei jakinaraziko zaie banakako erabaki baten bidez.

Bigarrena.-

Onartzea aurkeztutako alegazioei buruz IGBBk egindako proposamena (III. eranskinen jasotzen direnak). Osorik edo zati batean baietsitako alegazioak agentzia ebaluatzaileari, Estatuko Ikerketa Agentziako Koordinazio eta Ebaluazioko Azpiatalari, bidaliko zaizkio

berri ebalua ditzan. Eskabide horiek onartu egingo dira, baldin eta lortutako azken puntuazioa behin betiko erabakiaren mozteko dagokion puntuazioa baino handiagoa bada. Eraitza interesdunei jakinaraziko zaie, banakako erabakiaren bidez.

Hirugarrena.- 2022ko martxoaren 19tik 24era bitarteko epea irekitzea, hautatutako pertsonen Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten deialdiko 11. oinarrian eskatutako agiriak, betiere IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da laguntzari uko egiten zaiola.

Laugarrena.- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

Bosgarrena.- Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarritz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2022ko martxoaren 18an.

INMACULADA AROSTEGUI MADARIAGA
Ikerketaren arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación